



LEGORRETAKO UDALA
(GIPUZKOA)

PROBAREN ARAUDIA

1. Art. – Datorren 2025eko ekainaren 21ean, Legorretako Udalak antolatu eta Bilkoin, Jota-Kea eta Aldapaundi Elkarreek eta Pikuk Kirol Klubak lagundu eta herriko zenbait merkatariren babesarekin antolatutako XLV Legorretako Corpus Krosa izango da, parte hartu nahi duen korrikalari ororentzat, beti ere partaideak sasoiko daudenean.
2. Art. – Proba herriko hiri ibilbide batean gauzatuko da jarraian datozen baldintzapean.
3. Art. – Partaidearen dortsala bularrean jarri beharko da ongi ikusteko moduan. Dortsala jarririk EZ duen partaideak, EZINGO DU lasterketan parte hartzerik izango.
4. Art. – Izen ematea gauzatzerakoan edozein datu faltsifikatzen duen partaidea, automatikoki deskalifikatua izango da.
5. Art. – Antolatzailleek edozein motatako laguntza jasoz edo ibilbide osoa ez eginez harrapatzen duten partaidea deskalifikatua izango da.
6. Art. – Partaide batek dagokion izen ematea egiteko garaian automatikoki araudi hau bere osotasunean onartzea erakarriko dio.
7. Art. – Proba jarraituko duten pertsona edo ibilgailuak EPAILEAK izendatuak izango dira.
8. Lasterketaren ANTOLAKUNTZAK, proban zehar gerta daitekeen edozein gora-behera edo istripuk erakarritako erantzukizuni uko egiten dio.
9. Art. – Lasterketaren gauatzean sor daitezkeen araudi honetan aurrikusi gabeko kasuak ANTOLAKUNTZAK erabakiak izango dira, bere EPAIA APELAEZINA izanik.

Legorretan, 2025eko urtarrilaren 31n.

ANTOLAKUNTZA